

## XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA  
ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

693

*AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 20koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, zeinen bidez eratzen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren kontratazio-mahaia.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Erregimenari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak 4. artikuluan xedatzen duenez, sail bakoitzean eta, hala badagokio, erakunde autonomo bakoitzean kontratazio-mahai bakar bat eratuko da, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Erakunde Autonomoa atxikia dagoen saileko buruaren agindu bateratu baten bidez

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren 2010eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriaren bitartez eratu zen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailera atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa. 2011ko urtarrilaren 1ean hasi zen lanean aipatutako erakunde publikoa, eta 2011ko urtarrilaren 20an Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Gizarte Gaietako sailburuak emandako agindu baten bidez eratu zen bere kontratazio-mahaia.

Hala ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren izaera juridikoa aldatu du. Horrela, erakunde autonomo gisa eratu du, eta ez zuzenbide pribatuko erakunde gisa. Hortaz, erakunde autonomoaren kontratazio-mahaia arautu behar da.

Adierazitakoa kontuan hartuta, eta Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak txostena egin ondoren, honako hau

### XEDATZEN DUGU:

1. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren kontratazio-mahaia.

1.– Zuzendaritza Orokorrari atxikita, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kontratazio-mahaia eratu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Erregimenari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 5. eta 7. artikuluetan aurreikusitako funtzioak betetzeko eta bertan jasotako jardun-eremua duela, erakunde autonomoaren kontrataziopeko espedientei dagokienez.

2.– Aipatutako mahaiak honako kide hauek izango ditu:

a) Mahaiburua: Ekonomia eta Aurrekontuen Ataleko arduraduna. Hutsuneen, absentzien edo gaixotasunen kasuetan, edo legezko beste arrazoiren bat izanez gero, Antolakuntza eta Koordinazio Ataleko arduradunak ordezkatuko du.

b) Kideak:

- Kontratazioa eskatzen duen Zuzendaritzako edo Ataleko ordezkarri bat.

- Zuzenbidean lizentziatu bat, erakundera atxikia; bere ardura izango dira mahaiaren aholkularitza juridikoaren eta idazkaritzaren funtzioak.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoko ordezkari bat.
- Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari bat.
- Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzako ordezkari bat, ondasun eta zerbitzu informatikoei buruzko espedienteen kasuan.

## 2. artikulua.– Ordezkapenen erregimena.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6.2 artikulua bigarren paragrafoan xedaturikoaren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lehendakariak erabakiko ditu modu singularrean egin ez diren izendapenak eta agindu honetan aurreikusi ez diren ordezkapenak. Ahaleginak egingo dira ahalik eta aldaketa gutxien egiteko izendapen horiek egitean. Izendapen horiek, hala ere, espedienteen jasoko dira.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2011ko urtarrilaren 20ko Agindua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren kontratazio-mahaia eratzeari buruzkoa.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 20a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,  
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,  
MARÍA GEMMA ARÁNZA ZABALET AETA.